



3G USB HSPA WU-160 MODEMA

3G USB HSPA WU-160 MODEMAREN
ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA

Aurkibidea

1. Sarrera	<u>4</u>
2. Aplikazioa instalatzea eta desinstalatzea	<u>4</u>
2.1 Aplikazioa instalatzea	
2.2 Aplikazioa desinstalatzea	
3. Ekipoaren interfaze grafikoaren deskribapena	<u>6</u>
3.1 Ekipoan erregistratzea	
3.2 Interfaze grafikora sartzea	
4. Internet zerbitzua	<u>7</u>
4.1 Profil bat sortzea	
4.2 Konexioa kudeatzea	
4.3 Trafikoari buruzko informazioa	
5. SMS zerbitzua	<u>8</u>
5.1 Mezu bat sortzea	
5.2 Mezu bat bidaltzea	
5.3 Mezu bati erantzutea	
5.4 Mezu bat birbideratzea	
5.5 Mezu bat editatzea	
5.6 Mezu bat ezabatzea	
5.7 Mezu bat birbidaltzea	
5.8 Mezu bat bilatzea	
6. Direktorioa	<u>12</u>
6.1 Direktorioa kudeatzeko interfazea	
6.2 Kontaktuak sortzea	
6.3 Kontaktuak editatzea	
6.4 Kontaktuak ezabatzea	
6.5 Mezu laburrak bidaltzea	
6.6 Direktorioko erregistroak (U)SIM edo PCan kopiatzea	
6.7 Kontaktuak bilatzea	

7. Programazioa

15

7.1 Hizkuntza hautatzea

7.2 PIN kodea baliozkotzea edo baliogabetzea

7.3 PIN kodea aldatzea

7.4 PIN kodea egiaztatzea

7.5 PUK kodea nola erabili (U)SIM txartela desblokeatzeko

7.6 Aukerak

1 Sarrera

3G USB modemak GSM, GPRS, UMTS eta HSPA sareetara haririk gabe konektatzeko aukera ematen du, eta honako hauek egin daitezke harekin:

- Haririk gabe nabigatzea
- Mezuak jaso eta bidaltzea
- Direktorioa kudeatzea
- Programatzea
- Estatistiken historikoa erakustea

Prestazioak

- 3G sare-inguruneetan funtzionatzen du.
- Hauek onartzen ditu: GSM 850/900/1.800/1.900 MHz, WCDMA 900/2.100 MHz eta askotariko WCDMA 2.100 MHz Rx-n.
- Konexio-abiadura handia du. Deskargatzeko 7,2 Mb/s-rainoko abiadurak eta kargatzeko 5,6 Mb/s-rainoko abiadurak lor ditzake.
- Windows XP/Vista/7 eta MAC OS (10.5.X eta hortik gorakoak) onartzen ditu.
- USB interfaze bidezko konexioa. Beroan atera daiteke.
- Memoria mugikor gisa erabil daiteke: 4 GB-rainoko Micro SD biltegitarte-txartelak onartzen ditu.
- Ingurune profesionaleko beharren arabera diseinu estetiko du.
- Haririk gabeko konexioaren egoeraren LED adierazlea du.
- Ekipoan bertan dago sartuta driverra. Automatikoki instalatzen da konexioaren unean.

2 Aplikazioa instalatzea eta desinstalatzea

2.1 Aplikazioa instalatzea

Aplikazioaren instalazioa "Plug and Play" da. Jarraitu iezaiezu pantailan ageri diren jarraibideei instalazio-prozesua amaitzen den arte. Instalazioa gauzatzeko, jarraitu urrats hauei:

- 1. urratsa** Konektatu modema USB ataka batean. Instalatzeko prozesua automatikoki jarriko da martxan. Ondoren azalduko den pantailan, instalazioa zer hizkuntzatan egin nahi duzun hautatzeko aukera izango duzu: ingelesa edo gaztelania hauta daitezke.
- 2. urratsa** Hizkuntza hautatutakoan, sakatu OK.
- 3. urratsa** Sakatu Siguiete aurrera egiteko.
- 4. urratsa** Instalazio-karpeta hautatutakoan, sakatu Siguiete.
- 5. urratsa** Hautatu ea ikono bat sortu nahi duzun mahaigainean. Ondoren, sakatu Siguiete.
- 6. urratsa** Sakatu Instalar, instalatzeko prozesua hasteko.
- 7. urratsa** Sakatu Finalizar, instalatzeko prozesua amaitzeko.

2.2 Aplikazioa desinstalatzea


Aplikazioa desinstalatzeko, jarraitu urrats hauei:

- 1. urratsa** Sakatu Inicio -> Todos los programas -> <Aplicación Módem 3G>
- 2. urratsa** Sakatu Desinstalar <Aplicación Módem 3G> desinstalatzeko prozesua amaitzeko

3 Ekipoaren interfaze grafikoaren deskribapena

3.1 Ekipoan erregistratzea


- Ekipoa erregistratzeko, sakatu bitan aplikazioak mahaigainean sortu duen ikonoa
- Aplikazioa abiarazitakoan, identifikazio pertsonaleko zenbakia (PINa) sartu behar duzu:
- Ondoren, sakatu OK. Hiru aukera dituzu PINa zuzen sartzeko; hortik aurrera, ekipoko sare-funtzioak blokeatuta geratuko dira.



- SIM/USIM txartela zerbitzu-hornitzaileak ematen du. Xehetasun gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

3.2 Interfaze grafikora sartzea

Ekipoan aukera hauek izango dituzu:



4 Internet zerbitzua

4.1 Profil bat sortzea

Profil bat sortzen baduzu, zure operadorearen sare-parametroak programatu ahal izango dituzu. Profil bat sortzeko, hautatu:

Herramientas -> Opciones -> Gestión de perfil

Hautatu “Nuevo” profil berri bat sortu nahi baduzu; “Editar”, lehenik sortua zegoen bat aldatu nahi baduzu, eta “Borrar”, lehenik sortua zegoen bat ezabatu nahi baduzu. Ondoren, sakatu “Guardar” datuak gordetzeko. Profil bat erreferentziako aukera gisa definituta gera dadin, sakatu “Por defecto”.

4.2 Konexioa kudeatzea

Profila operadoreari dagozkion sare-parametroekin definitutakoan, Internetera sartzeko aukera izango da. Internetera sartzeko, jarraitu urrats hauei:

1. urratsa

Sakatu konexio-ikonoa:



2. urratsa

Profil-zerrendan, hautatu dagokion profila.

3. urratsa

Sakatu Conexión botoia, hautatutako sarera konektatzeko.

4. urratsa

Ireki ordenagailuko nabigatzailea hautatutako web-orria bistaratzeko.

5. urratsa

Konexioa ezarritakoan, sakatu “Desconectar” konexioa askatzeko.

4.3 Trafikoari buruzko informazioa

Sarean zer trafiko dagoen eta trafikoaren historikoa ikus daitezke Estadística tresnaren bidez. Horretarako:

1. urratsa Sakatu  a trafikoa kudeatzeko interfazera sartzeko.

2. urratsa Bistaratu abian dagoen konexioari buruzko informazioa. Ezarritako konexioaren iraupena eta kargatzeko/deskargatzeko abiadurak ikus daitezke, haiei dagozkion informazio grafikoa baliatuz.

Pantailan ageri den “Gráfico del histórico” botoiaren bidez, kontsumitutako datuen hileko historikoaren grafikoa bistara daiteke.

Oharra: Trafiko-datu estatistikoak erreferentzia gisa baino ez dira hartu behar.

5 SMS zerbitzua

Sakatu mezuen ikonoa  mezuen interfazera sartzeko.


5.1 Mezu bat sortzea

1. urratsa Mezu berri bat sortzeko, ikono hau sakatu behar duzu:




2. urratsa

Mezua idatzi.

**5.2****Mezu bat bidaltzea**

Helburuko zenbakia bi modutara sar daiteke:

- Aurreko pantailan dagokion eremuan zuzenean sartzea.
- "Enviar" botoia sakatzea eta telefono-zenbakiak hautatzeko interfazera sartzea:



Aldi berean kontaktu bat edo gehiago hauta ditzakezu, eta, gero, sakatu OK. Zenbakiak hautatutakoan, sakatu “Enviar” mezua bidaltzeko. Hartzaileari ezin bazaio mezua entregatu, irteerako ontzian gordeko da.



5.3 Mezu bati erantzutea

Mezu bati erantzuteko:

- 1. urratsa** Hautatu sarrerako ontziko mezu bat eta sakatu “Responder” ikonoa ataza-barran:



- 2. urratsa** Helburuko zenbakia automatikoki azalduko da dagokion eremuan. Nahi baduzu, beste bat jarri edo aldatu egin dezakezu.

- 3. urratsa** Idatzi erantzun-mezua, eta sakatu “Enviar” mezua bidaltzeko.

5.4 Mezu bat birbideratzea

Mezu bat birbidaltzeko:

- 1. urratsa** Hautatu mezu bat, eta sakatu “Reenviar” ikonoa:



- 2. urratsa** Mezuaren edukia automatikoki bistaratzen da editatzeko eremuan. Mezuaren edukia berriz editatzeko aukera dago.

- 3. urratsa** Sartu helburuko telefono-zenbakia, eta sakatu “Enviar”

5.5 Mezu bat editatzea

Mezu bat editatzeko:

- 1. urratsa** Hautatu Borrador karpeta (zirriborroena). Hautatu mezu bat, eta sakatu bi aldiz.
- 2. urratsa** Editatu mezuaren edukia. Sakatu “Guardar” edo Enviar” ikonoa.

5.6 Mezu bat ezabatzea

Mezu bat ezabatzeko:

- 1. urratsa** Kontaktu-zerrendatik, hautatu kontaktu bat edo gehiago
- 2. urratsa** Sakatu “Borrar” ikonoa:



- 3. urratsa** Sakatu OK, eragiketa berresteko
- 4. urratsa** Hautatutako mezuak ezabatu egingo dira, eta ezingo dituzu berreskuratu.

5.7 Mezu bat birbidaltzea

Mezu bat birbidaltzeko:

- 1. urratsa** Hautatu irteerako ontziko mezuetak bat
- 2. urratsa** Sakatu “Enviar”. Bidalketak huts egiten badu, saiatu berriro geroago

5.8 Mezu bat bilatzea

Sakatu bilatzeko ikonoa:



Idatzi izena, zenbakia edo mezuaren zati bat bilaketa-parametro gisa.

Oharra:

- Mezu baten zati bat idatz daiteke bilaketarako parametro gisa
- Mezuak bilatzeko prozesuan, automatikoki eguneratuko da aurkitutako mezuen zerrenda sartutako informazioaren arabera. Ez bada aurkitzen bilaketa-parametroekin bat datorren mezurik, ez da mezurik bistaratuko zerrendan.

6 Direktorioa

Funtzio horrekin, terminaletik kudeatu ahal izango duzu direktorioko kontaktuen agenda.


6.1 Direktorioa kudeatzeko interfazea

Sakatu  ikonoa direktorioa kudeatzeko interfazera sartzeko, eta, hala, tokiko direktorioa edo (U)SIM txarteleko direktorioa kudeatu ahal izango dituzu.

6.2 Kontaktuak sortzea

Kontaktu bat sortzeko:

- 1. urratsa** Sakatu “Nuevo” ikonoa, direktorioa kudeatzeko interfazearen ataza-barran:



- 2. urratsa** Sartu informazioa eta sakatu “Guardar”. Kontaktu berria zerrendan bistaratuko da.

6.3 Kontaktuak editatzea

Kontaktu bat editatzeko:

- 1. urratsa** Sakatu “Editar” ikonoa, direktorioa kudeatzeko interfazearen ataza-barran:




- 2. urratsa** Editatu informazioa, eta sakatu “Guardar” edukia gordetzeko.

6.4 Kontaktuak ezabatzea

Kontaktu bat ezabatzeko:

- 1. urratsa** Hautatu kontaktu-zerrendatik zer kontaktu ezabatu nahi dituzun

- 2. urratsa** Sakatu “Borrar”:




- 3. urratsa** Sakatu OK, eragiketa berresteko.

- 4. urratsa** Ezabatutako erregistroak ezin dira berreskuratu .

6.5 Mezu laburrak bidaltzea

Mezu bat bidaltzeko:

1. urratsa Hautatu, kontaktu-zerrendatik, kontaktu bat edo gehiago
2. urratsa Sakatu "Enviar SMS" ikonoa
3. urratsa Mezua editatutakoan, sakatu "Enviar":



6.6 Direktorioko erregistroak (U)SIM edo PCan kopiazea


Direktorioko erregistroak PCan edo (U)SIM txartelean kopiazeko:

1. urratsa Hautatu direktorioko erregistro-zerrendako bat edo gehiago.
2. urratsa Sakatu "Copiar" aukera, saguaren eskuineko botoiarekin.
3. urratsa Kopiatu erregistroak PCan edo (U)SIM txartelean.

6.7 Kontaktuak bilatzea

Kontaktu bat bilatzeko:


1. urratsa Sakatu "Buscar":



2. urratsa Sartu bilaketa-parametroak dagokien eremuan.

7 Programatzea n

Sakatu “Herramientas”, menu nagusian, dauden aukerak bistaratzeko:




7.1 Hizkuntza hautatzea

Sakatu Herramientas -> Selección de Idioma, hizkuntza hautatzeko

7.2 PIN kodea baliozkotzea edo baliogabetzea

Sakatu Herramientas -> Operación de PIN, eta hautatu PINa baliozkotzeko edo baliogabetzeko aukera:



1. urratsa Sartu PIN kode zuzena.

2. urratsa OK sakatutakoan, PINa baliozkotzeko edo baliogabetzeko eskatuko dizu.

7.3 PIN kodea aldatzea

PIN kodea aldatzeko :

1. urratsa Herramientas -> Operación de PIN sakatzean agertzen den goitik beherako zerrendan, hautatu Modificar PIN.
2. urratsa Sartu oraingo PIN kodea.
3. urratsa Sartu PIN kode berria. Sartu berriz, berresteko. Ondoren, sakatu OK.

Oharra : Baliozkotutako PIN kode batetik abiatuz baino ezin da PIN kodea aldatu.

7.4 PIN kodea egiaztatzea

PIN kodea egiaztatzeko:

1. urratsa Herramientas -> Operación de PIN sakatzean agertzen den goitik beherako zerrendan, hautatu Comprobar PIN.
2. urratsa Sartu PIN kode zuzena
3. urratsa Sakatu OK, egiaztapena gauzatzeko

7.5 PUK kodea nola erabili (U)SIM txartela desblokeatzeko


PUK kodea erabiltzeko, hauxe egin behar duzu:

1. urratsa Baldin eta txartela blokeatzen bada (adibidez, PIN kodea behar baino gehiagotan sartzen bada gaizki), exekutatu bezeroaren aplikazioa eta pantaila bat azalduko da desblokeatzeko PUK kodea sartzeko.
2. urratsa Sartu PUK kode zuzena
3. urratsa Sartu PIN kode berria
4. urratsa Sakatu OK. Txartela desblokeatuko da, eta PIN kode berria izango du orain.

7.6

Aukerak


Sakatu Herramientas -> Opciones aukeren zerrenda zabaltzeko:



Aukerak hauek dira:


Orokorra

Aplikazioa Windows hasieratzean abiaraz daiteke eta aplikazioaren leihoa minimiza daiteke




Testu-mezua

Mensaje de texto aukera hautatzean, pantaila hau ageri da.
Iristen diren mezuetarako zer ohartarazpen-mota nahi duzun hauta dezakezu: testua edo soinua.




Profilaren kudeaketa

Aukera hau hautatzean, profil berri bat sor daiteke, bai eta lehendik dagoen bat editatu edo ezabatu ere. Horretarako, sakatu zer aukera nahi duzun eta sartu horri dagozkion datuak:




Sarea

Informazioa ematen du eta sare-mota konfiguratzeko aukera ematen du, baita bilaketak egiteko eta erregistratzeko moduak konfiguratzeko aukera ere (eskuz edo automatikoki, lehenespenez).



Estatistikak

Estatistikak zer maiztasunekin lortu nahi dituzun konfiguratzeko balio du; halaber, gehieneko kontsumo bat zehaztu daiteke, kontsumoak maila jakin bat gainditzean jakinarazpen bat jaso nahi baduzu.



Diagnostikoa

Ekipoari dagokion informazioa ematen du.

